

**EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEAREN BILERA
REUNIÓN DEL CONSEJO ASESOR DEL EUSKERA**

2017-10-03 Euskadiko Artxibo Historikoa - Archivo Histórico de Euskadi 03-10-2017

Lehendakariaren hitzaldia –Discurso del Lehendakari

Arratsalde on eta ongi etorri bertaratu zareten guztiei.

Batzuk berriak zarete Euskararen Aholku Batzordean, beste batzuk aspaldiko ezagunak. Eskerrik asko guztiei gonbidapena onartzeagatik. Azken hilabeteotan euskararen osasunaren berri eman diguten bi ikerketa ezagutu ditugu: Euskararen VI. Inkesta Soziolinguistikoa eta Kale-erabileraren Neurketa.

Bi ikerketa hauek informazio asko eman digute euskararen biziberritze prozesuan egin dugun bidez. Euskararen erradiografia dugu eskuartean eta baliogarria da eman behar ditugun urratsak zehazteko. Emaitez erakusten dute euskarak azken hamarkadotan egin duen bide oparoa. Adostasun politikoak, gizartearen atxikimenduak eta euskalgintzak egindako lanak agertoki berri batera ekarri gaituzte.

Orain dela 25 urte baino 223.000 hiztun gehiago ditugu gaur egun. Tamainazko aldaketa da hau, aintzat hartzeko modukoa. Hitztunen ugaltze horrek erabat aldatu du euskaldunon profila. Euskararen bisaia era nabarmenean gaztetu da. Zenbat eta gazteago, orduan eta euskaldunago. Erraz esaten da hori, baina sekulako aldaketa da, itxaropenari atek zabaltzeko moduko arrakasta.

Euskararen hazkundeak ekarri duen gaztetze prozesu horrekin batera, bestelako aldaketak ekarri digu euskararen biziberritze prozesuak:

- Orain dela hamarkada batzuk ez bezala, gaur egungo milaka eta milaka euskaldun euskara nagusi ez den inguruetan bizi dira;
- Hitztun askok, gaur egungo gehienek, euskara etxetik kanpo jaso dute;
- Gure gizartearen hizkuntza ohiturak erabat aldatu egin dira.

Faktore hauek eta beste askok, ezinbestean, hizkuntzaren erabileran eragiten dute. Hizkuntza baten edozein biziberritze prozesuan bezala, ezagutza eta erabilera ez dira neurri berean hazten. Eta erabileran ikusten dugu, hain zuzen ere, aurrean dugun erronka nagusi bat.

Honetan ere argiak eta itzaropenerako datuak ikusten ditugu, baina fin egin beharko dugu lan asmatu nahi baldin badugu.

Euskaldunen kopurua areagotzea eta erabilera sustatzea dira Legegintzaldi honetako konpromisoak. Horretarako erakundeek, euskalgintzako eragileek, enpresek elkarrekin egin beharko dugu lan. Auzolanean aritu behar dugu.

Honen moduko Foroak berebiziko garrantzia dute eta Euskararen Agenda Estrategikoren baitan berrikuntzak izango dira datozen urteotara begira.

Urratsak ematen jarraitu behar dugu:

- Berrikuntzak izango dira, euskara administrazioan hedatzeko, eremu sozioekonomikoa euskalduntzeko edota euskara zehar-lerro gisa txertatzeko esparru ezberdinetan;
- Euskaldunon kopurua areagotzen jarraitzeko, euskararen irakaskuntzan B2 mailara arteko doakotasuna lortu nahi dugu epe laburrean;
- Erabilera bultzatzeko gizarte aktibazioa bilatuko dugu proiektu berritzaile baten bidez; eta honekin batera
- Bultzada bat eman nahi diogu gure hizkuntzari aisialdian, kirolean edota ingurune digitalean bereziki.

Bide oparoa egin dugu euskararen biziberritze prozesuan, eta ez da aldats behera izan: hainbat zailtasun eta oztopo gainditu ditugu. Gauden tokitik aurrera ere erronkak izango ditugu, oztopoak izango ditugu, baina gure hizkuntzaren etorkizuna eraikitzeko aspaldiko baldintzarik onenak ditugulakoan nago. Beraz, auzolanean lortuko dugulakoan nago.

Eskerrik asko guztioi.